



BETIKOA, GERTUKOA kanpaina **“Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz!”**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina aurkeztuko du azaroaren 17an. “Merkataritzan Euskaraz” kanpainaren helburua tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta merkataria nahiz bezero euskaldunak aktibatzea da.

Ekimen hau hainbat eragilerekin elkarlanean bideratu da eta EAEko udal askok bat egin dute proiektuarekin, tartean gureak. Kanpaina honek, baina, ez luke zentzurik izango merkatarien parte hartzerik gabe. Horregatik, kolektibo honetara jo nahi izan dugu, kanpaina honen zabalkundeetan eta gure herriko denda eta tabernetan euskararen erabilera areagotzen lagun gaitzazuen.

Gure denda edo tabernetan maiz entzuten dugu “Jarri betikoa”; konfiantzazko harremana dela adierazten digu esaldi horrek, gertukoa, betikoa... Honela, euskara egunerokotasunean erabiltzeko hizkuntza gisa eta konfiantza sortzeko bide gisa aurkeztu du kanpainak, “Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz” lelopean. Mezu hori da, hain zuzen, kanpainaren ardatza.

Kanpainaren zabalkunderako euskarri ezberdinak erabiliko ditugu: telebistarako spota, irratirako iragarkia, kartelak, bannerrak, prentsa idatzirako iragarkiak....

Halaber, kanpainaren mezuarekin bat egin eta zuen bezeroekin, ahal den guztietan, euskaraz egin dezazuela eskatu nahi dizuegu.

Azkenik, aukera hau baliatu nahi dugu

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco presentará el 17 de noviembre la campaña de promoción del euskera en el comercio. El objetivo de la campaña “Merkataritzan Euskaraz” es fomentar el uso del euskera en el comercio local y activar a las y los comerciantes y a la clientela euskaldun.

Esta iniciativa se ha llevado a cabo con la colaboración de diferentes agentes; muchos ayuntamientos de la CAV se han sumado al proyecto, entre ellos, el nuestro. Pero esta campaña no tendría sentido sin la participación de los y las comerciantes. Por eso nos dirigimos a este colectivo, para que nos ayudeis en la difusión de esta campaña y en el aumento del uso del euskera en los comercios y bares de nuestro pueblo.

En nuestros establecimientos escuchamos con frecuencia aquello de “lo de siempre”; esta expresión es sinónimo de confianza, de cercanía, de lo de siempre. Así, la campaña presenta el euskera como lengua de uso cotidiano y como medio para generar confianza. El slogan de la campaña es precisamente “Lo de siempre, lo cercano. Pide en euskera, ofrece en euskera”.

Para la difusión de la campaña se utilizarán diferentes soportes: un spot para televisión, el anuncio para radio, carteles, banners, anuncios para prensa escrita...

Asimismo, os pedimos que os suméis al mensaje de la campaña y que utilicéis el euskera con vuestra clientela siempre que sea posible.

Por último, queremos aprovechar esta ocasión para daros las gracias de



aldez aurretik eskerrak emateko. Zuek egiten duzue auzoa, zuek egiten duzue herria; hortaz, guztion artean segi dezagun pausoak ematen euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko gure udalerrian.

antemano. Vosotros dais vida a nuestros barrios; vosotros dais vida a nuestro pueblo; por tanto, entre todos y todas sigamos dando pasos para aumentar la presencia y el uso del euskera en nuestro municipio.

eskatu eskaini EUSKARAZ



BETIKOA, GERTUKOA.



Barakaldo
CIUDAD-HIRIA